



PROGRAMAZIO LABURRA

IKATETXEAREN IZENA	ARALAR BHI							2022-23
ARLOA / GAIA	EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA						DATA	2022-11-07
MAILA	DBH-1		DBH-2	X	DBH-3		DBH-4	

1

ARLOAREN GUTXIENKO KONPETENTZIAK

ZEHAR KONPETENTZIAK

- K1- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- K2- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
- K3- Elkarbizitzarako konpetentzia.
- K4- Izaten ikasteko konpetentzia.
- K5- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.

DISZIPLINA BAITAKO KONPETENTZIAK

- K6- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
- K7- Hizkuntza eta Literatura komunikaziorako konpetentzia.
- K8- Matematikarako konpetentzia.
- K10- Teknologiarako konpetentzia.
- K11- Arterako konpetentzia.
- K12- Konpetentzia motorra.
- K13- Zientziarako konpetentzia.



Helburuak

*Letra lodiz idatzita dagoena **minimotzat** edo **gutxienezkotzat** jotzen dena da.

Ahozko komunikazioa

- **Ahozko testu mota desberdinak entzun, ulertu eta aztertzea** K1,K2,K7
- **Ahozko testuak sortu eta edukiak planifikatzea** K1,K2,K7
- **Ahoskera eta intonazio egokia erabiltzea.** K3,K5,K7

Komunikazio idatzia

- **Idatzizko eta irakurritako testuen egitura antzematea:** igorlearen asmoa eta ideiak ordenatuz. K1,K2,K7
- **Idatzizko testuak aztertzea.** Ideia nagusiak eta 2.mailakoak identifikatu eta eskemak burutuz. K1,K2,K7, K10
- **Lexiko ezezagunaren esanahia bilatu eta testualizatzea.** K1,K2,K7
- **Idatzizko testuak ezagutu eta sortzea:** koherentzia, kohesioa eta zuzentasunez. K1,K2,K7
- **Testu idatziak antolatu eta planifikatzea,** egitura jakinak, eskemak, erabiliz. K1,K2,K7, K10
- **Auto-zuzenketarako tresnak lantzea.** K1,K2,K7

Literatura

- **Gazte literaturako lanak**, tradizionalekoak eta herri-literaturakoak **irakurtzea:** gogotsu eta gozatuz. K2,K7
- **Olerkiak eta bertsoak entzun eta errezipitatzea.** K2,K7, K8
- **Antzerki-lanak dramatizatuz irakurtzea.** K2,K7,K11
- **Literatura asmoko testuak sortzea:** ipuinak. K2,K7
- **Euskal abestiak ezagutu, aztertu eta ikastea.** K1,K2,K7

Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- **Ahozkoan eta idatzizkoan ematen diren fonema eraldaketak zuzentzea edo gainditzea.** K1,K2,K7
- **Testu-lokailuak antzeman eta erabiltzea;** zehazki lekuari, denborari eta antolatetari dagozkionak. K1,K2,K7
- **Aditz jokoak eta komunztadurak; eta deklinabidea ezagutzea eta zuzen erabiltzea.** K1,K7
- **Paragrafoa esanahidun unitatetzat hartzea eta puntuazio idatzia antolatzeke mekanismotzat.** K1,K7
- **Oinarrizko gramatika kategoriak ezagutzea** K1,K7
- **Ortografia-zuzentzaileak erabiltzea.** K1,K7, K10
- **Testuetako hizkuntza zuzentzea eta gramatika berrikusteko zuzenketa fitxak erabiltzea.** K1,K2,K7

Hizkuntzaren dimentsio soziala

- **Eleaniztasuna eta kultura –aniztasuna existitzen dela onartu eta horretarako beste hizkuntzetako testuak bilatzea, irakurtzea eta entzutea.** K1,K2,K5,K6
- **Euskararen erabilerari lehentasuna ematea, pertsona arteko harremanetan eta ikaskuntza egoeretan.** K3,K7
- **Hizkuntza guztienganako jarrera positiboa lantzea.** K3,K5,K6



2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
OR D.	1. ebaluazioa	OR D.	2. ebaluazioa	OR D.	3. ebaluazioa
2	KOMUNIKAZIOA 1: Ataria, irakurmena eta komunuikazioa jarduerak: Kar, kar, kar! - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamena - Idazmena - Testua aztertzen (Barre egitea, ariketa ezin hobea)	2	KOMUNIKAZIOA 5: Ataria, irakurmena eta komunuikazioa jarduerak: Mundua inauteri - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamena - Idazmena - Testua aztertzen (Gizon irudiduna)	2	KOMUNIKAZIOA 9: Ataria, irakurmena eta komunuikazioa jarduerak: Domotika: zuk soilik klika! - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamena - Idazmena - Testua aztertzen (sareko izarrek)
2	Gramatika - Perpauaren osagaien funtzioak - Izena eta izenordainak	2	Gramatika - Aditza (Aspektua lehenaldian) - Perpau motak	2	Gramatika - Baldintza hipotetikoaren erabilera - Baldintza jokatuak eta jokatugabeak
2	Komunikazioa (Egiten jakin) - Txiste bat kontatzea - Jon Plazaola aktorea (entzumena) - Gauzak deskribatzea (Papalagien oinetakoak)	2	Komunikazioa (Egiten jakin) - Tribu urbanoak deskribatzea - Larruazalaren artisau (entzumena) - Albiste (Gizon batek objektuak azalari atxikita izateko errekorra ezarri du Guinness liburuan)	2	Komunikazioa (Egiten jakin) - Norbere logela diseinatzea - Sekula ahaztuko ez dudana esperientzia (entzumena) - Iragarkia: Altxa altzariak. Irratirako iragarkiaren gidoia
1	Lexikoa eta ortografia - Multzo atzizkiak - Zenbaki kardinalak nola idatzi	1	Lexikoa eta ortografia - Interjekzioak - Aditz-partizipioen idazkera	1	Lexikoa eta ortografia - Kirolaren arlo lexikoa - Puntuazioa
2	Literatura (Mitologia eta kondaira)	2	Literatura (Haur eta gazte literatura)	2	Literatura (narratiba IV: polizia-eleberria eta eleberri beltza)
1	Amaierako jarduerak	1	Amaierako jarduerak	2	Amaierako jarduerak
1	Gaitasunen neurketa	1	Gaitasunen neurketa	1	Gaitasunen neurketa
2	KOMUNIKAZIOA 2: Ataria, irakurmena eta komunuikazioa jarduerak: Klip-kultura - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamena - Idazmena - Testua aztertzen (Bideo jokoak arte	2	KOMUNIKAZIOA 6: Ataria, irakurmena eta komunuikazioa jarduerak: Mendian ala kalean? - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamena - Idazmena - Testua aztertzen (Bizitza alternatiboak)	2	KOMUNIKAZIOA 10: Ataria, irakurmena eta komunuikazioa jarduerak: Irteera eta helmuga - Irakurketa - Entzungaia - Mintzamena - Idazmena - Testua aztertzen (Vilariñotarren dama



	mugimendua osatu nahian)				azkarra)
2	Gramatika	2	Gramatika	2	Gramatika
	Izen sintagmaren erabilera		Aditza: NOR-NORK aditz laguntzaileak		Aditza: agintera
2	Komunikazioa (Egiten jakin)	2	Komunikazioa (Egiten jakin)	2	Komunikazioa (Egiten jakin)
	- Bideo joko baten ezaugarriak azaltzea - Erabaki etikoak jokoan (entzumena) - Entziklopediako sarrera		- Etorkizuneko gizakia deskribatzea - Ilargia eta Marte, giza koloniak(entzumena) - Kazetaritza elkarriketa: Zehar estiloan (Egunen batean unibertsoren legeak ulertuko ditugula uste du Hawking-ek)		- Bide hezkuntza hobetzea - Poloniatik Euskal Herrira sidekarrean (entzumena) - Gutun irekia: Gutun irekia Jules Bianchiri
1	Lexikoa eta ortografia	1	Lexikoa eta ortografia	1	Lexikoa eta ortografia
	- Toki atzizkiak - Zenbaki ordinalak nola idatzi		- Hitz elkarketa - Menderagailuak		- Jaien eta ospakizunen arlo lexikoa - Harridura- eta galdera-markak
2	Literatura (Herri ipuinak)	2	Literatura (Narratiba I : bidaiak eta abenturak)	2	Literatura (Narratiba V: beldurrezko eleberria)
1	Amaierako jarduerak	1	Amaierako jarduerak	1	Amaierako jarduerak
1	Gaitasunen neurraketa	1	Gaitasunen neurraketa	1	Gaitasunen neurraketa
					KOMUNIKAZIOA 11:
					Ataria, irakurmena eta
2	KOMUNIKAZIOA 3:	2	KOMUNIKAZIOA 7:	2	komunikazioa jarduerak:
	Ataria, irakurmena eta komuniukazioa jarduerak:		Ataria, irakurmena eta komuniukazioa jarduerak:		Behin betiko esanak
	Hil eta gero, salda bero!		Arteraen esangura		- Irakurketa - Entzungaia - Mintzamina - Idazmena - Testua aztertzen (Halloween, ohitura zaharra Euskal Herrian)
2	Gramatika	2	Gramatika	2	Gramatika
	- Deklinabidea (mugagabea) - Adizlagunak: Postposizioak		- Aditza: NOR-NORI aditz laguntzaileak - Moduzko perpausak		- Aditza: ahalera - Kausazko perpausak
2	Komunikazioa (Egiten jakin)	2	Komunikazioa (Egiten jakin)	2	Komunikazioa (Egiten jakin)
	- Ohitura baten berri ematea - Halloween bitxiak munduan (entzun) - Deskribapen testua (Kali, heriotzaren jainkosa)		- Margolan baten ezaugarriak azaltzea - Musikaren balioa (entzumena) - Iritzi artikulua (Alfonbra gorria)		- Kontzientziario kanpaina egitea - Mangazalea naiz (entzumena) - Gonbita
1	Lexikoa eta ortografia	1	Lexikoa eta ortografia	1	Lexikoa eta ortografia
			- Lokuzioak eta atsotitzak - H letraren erabilera		- Eguraldiaren arlo lexikoa - Marratxoa eta marra luzea
		2		2	Literatura (Narratiba VI: zientzia fikzioa)
				1	Amaierako jarduerak
				1	Gaitasunen neurraketa



2	• Denbora atzizkiak		Literatura (Narratiba II : eleberri historikoa)		
1	• Zenbaki banatzaileen idazkera	1	Amaierako jarduerak	2	KOMUNIKAZIOA 12:
1	Literatura (Atsotitzak)	1	Gaitasunen neurketa	2	Ataria, irakurmena eta komuniukazioa jarduerak:
					Zeru-lurren uztarria
					• Irakurketa
					• Entzungaia
					• Mintzamena
					• Idazmena
					• Testua aztertzen (Magia duten eraikuntzak)
2	KOMUNIKAZIOA 4:	2	KOMUNIKAZIOA 8:	2	Gramatika
	Ataria, irakurmena eta komuniukazioa jarduerak:		Ataria, irakurmena eta komuniukazioa jarduerak:		• Aditza: Subjuntiboa
	Beti bila ala berton goxo?		Nortasuna bereizgarri	2	• Kontzesio-perpausak
	• Irakurketa		• Irakurketa		Komunikazioa (Egiten jakin)
	• Entzungaia		• Entzungaia		• Tokiak eta kulturak deskribatzea
	• Mintzamena		• Mintzamena		• Atlantida (entzumena)
	• Idazmena	2	Gramatika		• Egitaraua
	• Testua aztertzen (Marko Polo nafarra)		• Aditza: NOR-NORI-NORK aditz laguntzaileak	1	Lexikoa eta ortografia
2	Gramatika	2	Komunikazioa (Egiten jakin)		• Modaren arlo lexikoa
	• Aditz trinkoen erabilera		• Jokabide-protokoloa sortzea		• Gailu elektrikoaren bidez idaztea
2	• Aditz jokatuabeak : aditz-izena		• Interneten askatzen (entzumena)	2	Literatura (Zinema eta literatura)
	Komunikazioa (Egiten jakin)		• Iruzkina: film bati buruzkoa (Requiem for a dream)	1	Amaierako jarduerak
	• Animalien adopzio kanpaina sortzea	1	Lexikoa eta ortografia	1	Gaitasunen neurketa
	• Arrano arrantzalearen bidaia (entzumena)		• Arloak eta familiak		
	• Orientabideak (Donostiako Alde Zaharra)	2	Literatura (Narratiba III: eleberri erromantikoa)		
1	Lexikoa eta ortografia	1	Amaierako jarduerak		
	• Gogo atzizkiak	1	Gaitasunen neurketa		
2	• Aditzoinaren idazkera				
1	Literatura (Alegiak)				
1	Amaierako jarduerak				
1	Gaitasunen neurketa				



3

IKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

Euskara eta Literatura arloa lantzeko erabiliko ditugun printzipio metodologikoak hauexek dira:

1. Aurrezagutzaren printzipioa: Eskolara baino lehen eta eskolatik at ikasitako gauza asko dago ikaslearen altxorrean, areago mundu mugikor eta aldakor honetan. Dakitenetik abiatuz eta elkarrizketa sortuz abiatu beharra dago, eta funtzio hori betetzera dator Ataria jarduera.
2. Egokitzapenaren printzipioa: Hezkuntzaren izaera hezitzailea indartu egin behar da. Ikasleak gauzak egiten jakiteko prestatu behar ditugu, errealitatean aplikatzen den jakintzarako, askotariko testuinguruetara egokitzeko aukera ematen duen eta izaera integratzailea duen jakintza, prozedura eta jarreretarako. Gure ikasleek jakin eta egiten jakin behar dute, jakintza eta ekintza uztartuz.
3. Funtzionaltasunaren printzipioa: Bizitzarako balio dion zerbait bezala hartu behar du ikasleak eskolako jarduna. Horregatik du halako garrantzia zertarakoak. Beraz, haien errealitatean eta interesetan oinarritzen diren jarduerak proposatzen saiatu gara.
4. Komunikazioaren printzipioa: Hizkuntza elkarrekintzan erabiliz eta besteekin gauzak egiteko erabiliz garatzen da. Komunikazioa izango da ikaskuntza-irakaskuntza estrategia nagusia, prozesuaren giltzarria; hizkuntzaren erabilera esanguratsua eta eraginkorra eraikitzean datza. Ikasleek hainbat eratako komunikazio egoeren aurrean aritzeko baliabideak lor ditzaten testu genero mota desberdinak landuko dituzte, beren bizitza pertsonalean eta profesionalean beharko dituztenak.
5. Printzipio eraikitzailea: Ikasketa proiektu jardueren bidez ikasleak parte hartze aktiboa du jakintzaren sortze prozesuan, beti ere, irakaslearen laguntzarekin. Jarduera hauek ikasleak motibatu egiten dituzten tresna didaktikoak dira, ikasleak bere ezagutza propioa autonomiaz eraikitzen duelako eta jakintza maila diferenteetara egokitzen direlako, norberaren ahalmenera moldatuz. Proiektu osoen bidez erraztu egiten da oinarritzko gaitasunak ikasleei helarazteko bidea eta jakintza arloen eta irakasgaien arteko diziplinartekotasuna. Ikaslea da azken finean, informazioa lortu, hautatu, eraldatu eta prozesatzen duena; beraz, subjektu aktiboa da. Errealitatean eta haien interesetatik hurbil dauden proiektuak planteatuz motibatzen ditugu ikasleak.

Beraz, ikaslea subjektu aktibo bihurtzen da ikaste prozesuan. Hori kontuan izanik, irakaslearen papera



aldatu egiten da. Irakasleak funtzio bi izango ditu: alde batetik, ikasleak motibatzea proiektu motibagarriak eskainiz; eta, beste aldetik, gidari izan beharko du ikaskuntza prozesuan, beharrezko argibideak eta baliabideak emanez eta esplorazioa bideratuz.

6. Talde lanaren printzipioa: Zenbait ariketak bakarlanean ematen du etekinik ederrena, baina elkarlanean aritzeak garrantzi handia du gaur egun. Beraz, bi eratako jarduerak planteatzen ditugu unitate guztietan.
7. Diziplinartekotasunaren printzipioa: Proposatzen ditugun jardueren bidez arlo desberdinetako jakintzak uztartzen dira; beraz, oinarritzko gaitasunen garapena bermatzen da. Ezin ahaztu, bestalde, euskara komunikazio tresna dela; eta, beraz, ezinbesteko tresna dela edozein giza harremanetarako.

4

BALIABIDEAK

TESTU-LIBURUA:**Euskara eta Literatura. Eragin DBH 2****ARGITALETXEA:****Zubia Santillana**

Oinarri dugu testu-liburuaz gain, irakurketa-liburuak, prentsako artikulak, filmak, kantuak, bertsoak, eta abar ere erabiliko ditugu. Ikasturte honetan, hiru nobela hauek izango ditugu irakurgai eta hiruhileko bakoitzean bat irakurri eta landuko dugu: Jasone Osororen *Eskularru beltzak* (2017), Harkaitz Canoren *Orkestra lurtarra* (2013) eta Miren Agur Meaberen *Itsaslabarreko etxea* (2016).

Banakako Curriculum Egokitua duten edo edukiak minimoetara egokitzen zaizkien —eta, ondorioz, irakasle laguntzaile edo PTen laguntza jasotzen duten— ikasleekin, oinarri dugun testu-liburuko edukiak eta helburuak minimoetara egokituta landuko ditugu. Eta arestian aipatutako irakurketa-liburu edo nobelak landu ordez, ondorengo hauek landuko ditugu: Jasone Osorok idatzitako *Jara* (2001) eta *Eskularru Beltzak* (2017) sailtako nobelak.

Ordenagailua, testu-liburuaz eta paperezko koadernoaz gain, ezinbesteko tresna izango dugu ikasketa-prozesuan, ia lanketa gehienetarako: ariketak egiteko, informazioa bilatzeko, idazlanak egin, zuzendu eta partekatzeko, ikus-entzunezkoak baliatzeko, etab.

Internet bidez erabiliko ditugun webguneak eta aplikazioak, berriz, hauexek izango dira, besteak beste: google, drive, classroom, meet, youtube, euskal hiztegiak, ikasbil, Berria, Argia eta EITB hedabideetako webguneak, etab. Ikastetxeko euskarazko haur eta gazte literaturari eskainitako bloga ere hortxe izango dugu erabilgarri: <http://aralartxikitxoko.blogspot.com.es/>.



5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA ADIERAZLEAK EBALUAZIO TEKNIKAK ETA TRESNAK. KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
	EBALUAZIO IRIZPIDEAK - Ahozko testuak ulertu eta sortu ditu. - Badaki idatzizko testuak sortzen, koherentziaz, kohesioz eta zuzentasunez. - Literaturaz ezagutza jaso du eta gozatu du. - Aditza eta deklinabidea zuzen erabiltzen ditu. - Oinarrizko gramatika kategoriak ezagutzen ditu: izena, aditza, izenlagunak/ izenondoak, adizlagunak/aditzondoak, determinatzaileak, etab. Ebaluazioan aniztasunari arreta eskainiko zaio; eta, horretarako, kasu bakoitza aztertuko da. Laguntza eta egokitzapena behar duten ikasleei bai eguneroko lana, bai notarako lanak, bai azterketak, egokitu egingo zaizkie. Halako kasuetan, eguneroko lanak eta ikaslearen jarrerak aparteko garrantzia izango dute.
	KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK Hizkuntz gaitasunen, gramatika- eta hiztegi-edukien eta literaturaren inguruko frogak % 30. Irakurketa-liburuaren inguruko lanketak eta iruzkinak, %10. Idazmenak %30. Mintzamenak %10. Jarrerak %20. Eguneroko lana, etxerako lanak eta gelako jarrera positibo eta negatiboen bidez ebaluatuko da. Atal bakoitzean gutxieneko bat lortu beharko da atala eta ikasgaia gainditzeko. Ikasleei ikasturte-hasieran zehatz emango zaie kalifikazio-irizpideen berri. TRESNAK Entzutezko eta irakurtzeko testuen ulermen-frogak, gramatika-, hiztegi-, ortografia- eta literatura-edukiak lantzeko ariketak eta ahozko eta idatzizko ekoizpen labur eta luzeagoak lantzeko ariketak.
6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE-SISTEMA
I.N. Aparteko lanak.	Hurrengo ebaluaketak gainditzea edo agindutako lanak ongi egitea.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA
Hezkuntzako Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Inspección de Educación